

Sortzailearen sortze prozesuari, berez konplexua eta ertz anitzduna denari, beste hainbat dimentsio eransten dizkio garai digitalak. Alde batetik, taldean sortzea errazten du, teknologia berriekin kulturako arlo errotuak irauli edo lokalizazio fisikoaren mugak ere gainditu. Bestetik, sortzaile eta ikus-entzulearen artean zubi berriak eraikitzen ditu, non ikus-entzulea bera eduki sortzaile bihurtu daitekeen.

Wikiak dira taldean jakintza sortzearen adibide ederra eta [HirikiLab](#)sek dinamizatuta etorri dira Kabi@ra wikilari euskadunak. Herri desberdinetako wiki proiektuak ([Amarapedia](#) adibidez) batu dira Kabi@n estrategiak bateratu dituzte eta sinergiak aurkitzeko, baita parte-hartze irekia bilatu ere.

Bildu dira herrietako proiektuetako wikilariak [#50DA](#)  
[pic.twitter.com/wtfl12Z9r7](http://pic.twitter.com/wtfl12Z9r7)

— Kabi@ (@kabiadurango) [December 6, 2015](#)

Euskal atzerkigintzara ere irisi dira teknologia berriak, eta horren erakusgarri da Barbantxo 3D ipuin interaktiboa: paperean, aplikazioan eta atzokitan gozatu dezakeguna. [Barbantxo](#) klasikoa berbisitatzen du proiektuak [Logela Multimedia](#)ren eskutik.

Barbantxo 3D orain Kabi@n [#50DA](#) cc [@durangokoazoka](#)  
[pic.twitter.com/V3xKk2Sndl](http://pic.twitter.com/V3xKk2Sndl)

— Kabi@ (@kabiadurango) [December 6, 2015](#)

[Hiru Damatxo](#) komunikazio enpresako sortzaile gazteek berriz, internet erabiltzen dute bere eduki alternatibo eta sozialaren zabalpena handitzeko. Hobeto egiten dakitena egin dute Kabi@n: hitz egin eta edukia sortu.

Kepa, Lander eta Unai [@hirudamatxo](#) proiektuaren gainean  
[@durangokoazoka](#)|ko [@kabiadurango](#)|n [#50DA](#)  
[pic.twitter.com/PxWHmyjs2g](http://pic.twitter.com/PxWHmyjs2g)

— Kabi@ (@kabiadurango) [December 6, 2015](#)

Eta euskarazko edukien zabalpenaren bisualizazioan giltzatak bat, nola ez, ['.eus' domeinuak](#)

dira. PuntuEus Fundazioko Lorea Arakistainek bota du erronka, baiez aurten 5000 domeinuetara iritsi, gertu baino gertuago egonik, Abenduko kanpainarekin beteko da helburua ziur.

Lorea Arakistain [@loreaarakistain](#) [@puntueus](#) [#5000baitz](#) eta puntueus behatokia kontatzen [#50DA](#) cc [@durangokoazoka](#) [pic.twitter.com/YhmNJINx2h](http://pic.twitter.com/YhmNJINx2h)

— Kabi@ (@kabiadurango) [December 6, 2015](#)

Txalaparta bezalako musika instrumentu zentenarioak ere badu bere egunaketa Kabi@n. Enrike Hurtado+Beñat Iturrotz eta Ttotelkakoek beraien txalaparta proposamenak ekarri dituzte. Txiki geratu da Kabi@ artista hauen talenturako: teknologia berri askeak, sorkuntza eta ikuskizuna, batuketa gaindiezina.

Enrike Hurtado bere txalaparta digital generatiboa aurkezten [@durangokoazoka](#)|n [#50DA](#) [pic.twitter.com/IC2IV3azXQ](http://pic.twitter.com/IC2IV3azXQ)

— Kabi@ (@kabiadurango) [December 6, 2015](#)

ETORKIZUNA  
IDAZTEN

DUTek bertsiionatu zuen Mikel Laboaren kanta baten bertsiua. [#50DA](#) [pic.twitter.com/EFhoecAZ3O](http://pic.twitter.com/EFhoecAZ3O)

— Kabi@ (@kabiadurango) [December 6, 2015](#)

Bukatzeko, [H28](#) agerkari saretirikoa aurkeztu digute Axi ilustratzaileak eta Lander koordinatzaileak. Euskal agendako gai eta pertsonai garaikideak umore garratzarekin janzten dituzte bertako gidoilari eta marrazkigileek hilabeteko 28. egunean; azokara gainera Urtikaria urtekaria ekarri dute.

<https://t.co/IC4bqoNp6y> aurkezten Lander eta Axi [@H28aldizkaria](#) [@durangokoazoka](#) [pic.twitter.com/Us53u4hvlm](http://pic.twitter.com/Us53u4hvlm)

— Kabi@ (@kabiadurango) [December 6, 2015](#)

Hori gaurko langa. Bihar hedabideen etorkizuna izango duzue [Kabi@n](#), gaur etzi.pm-en irakurri dezakezue.

## Zabaldu:

- [Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Pocket \(Opens in new window\)](#)

